



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 23a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita jarrai dezan ikertzen gerra zibilean Errepublikako Armadako kide izan ziren nafarrei buruz, Oroibidearen artxi-boan sar daitezen, errepresio frankistaren beste biktima batzuekin egin den bezala. Memoria eta Bizikidetzatza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak onetsi du (2. or.).
- 11-25/MOC-00048. Erabakia, zeinaren bidez Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitzaio "terrorismoa sustatzen duen estatu" izendapena ken diezaion Kubari. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- GRP-2/23. María Inmaculada Jurío Macaya andreak foru parlamentari izateari uko egitea (4. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00042. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita jarrai dezan ikertzen gerra zibilean Errepublikako Armadako kide izan ziren nafarrei buruz, Oroibidearen artxiboan sar daitezen, errepresio frankistaren beste biktima batzuekin egin den bezala

MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak 2025eko apirilaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita jarrai dezan ikertzen gerra zibilean Errepublikako Armadako kide izan ziren nafarrei buruz, Oroibidearen artxiboan sar daitezen, errepresio frankistaren beste biktima batzuekin egin den bezala. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen du jarrai dezan ikertzen gerra zibilean Errepublikako Armadako kide izan ziren nafarrei buruz, Oroibidearen artxiboan sar daitezen, errepresio frankistaren beste biktima batzuekin egin den bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Defentsa Ministerioak eta Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko

Ministerioak aitortza egin diezaieten Espainiako Errepublikako Armadako kide izan ziren frankismoaren biktima guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Defentsa Ministerioaren kuarteletan eta eraikinetan Errepublikako Armadako 54 goi-kargudunak berrezarri eta identifika ditzan arduradun publiko ofizial gisa.

4. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du Defentsa Ministerioaren Nafarroako Ordezkaritzaren egoitza den eraikinean plaka bat jar dadin honako testu honekin: «Aitortza eta omenaldia eskaintzeko Errepublikako Armadako kide izan ziren nafar guztiei, bai eta Estatuko beste leku batzuetakoak ziren eta 1936ko estatuko leial izateagatik Nafarroan bizitza galdu zuten pertsonen ere»".

Iruñean, 2025eko apirilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00048. Erabakia, zeinaren bidez Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitzaio "terrorismoa sustatzen duen estatu" izendapena ken diezaion Kubari

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2025eko apirilaren 15ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen baitzaio "terrorismoa sustatzen duen estatu" izendapena ken diezaion Kubari. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari exijitzen dio "terrorismoa sustatzen duen estatu" izendapena ken diezaion Kubari.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernua premiatzen du Kuba «terrorismoa sustatzen duten estatuen» zerrendatik ateratzearen aldeko neurriak har ditzan berehala".

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

GRP-2/23. María Inmaculada Jurío Macaya andreak foru parlamentari izateari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko apirilaren 22an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Foru parlamentari María Inmaculada Jurío Macaya andreak foru parlamentari izateari uko egite aldera aurkeztu duen idazkia dela-eta, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez uko egiten baitio foru parlamentari izaerari

—izaera hori apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen (2023ko apirilaren 4ko 68. NAO), Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE hautagaitzaren barruan—.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias